

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 05 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai dira eta guztira 25 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du eta bigarrenean 0,6. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuretzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ILARGIA: HAIN HURBIL, HAIN URRUN

Urtearen hasieran, «Ilargiaren urtea» izango zela iragarri zuen batek baino gehiagok. Izan ere, Ilargia helburu zuten hainbat egitasmo zeuden planifikatuta epe motzera, eta zurrumurru bat ere zabaldu zen: 2018a gizakia berriro Ilargira eramango zuen urtea izan zitekeen. Egitasmoetako batzuk, ordea, bertan behera geratu dira, eta beste batzuek, berriz, ez daukate data ziurrik. Baina bada aurrera doanik ere.

Lehenengo zartakoa egitasmo pribatuetan itxaropena jarrita zutenek hartu zuten. Hain zuzen, urteko lehen hilabetea bukatu baino lehen iritsi zen zuhurrenek aurreikusitako erabakia: Googlek bertan behera utzi zuen *Google Lunar X Prize* lehiaketa. Lehiaketa 2007ko irailean sortu zuen Googlek, espazioaren esplorazioa bultzatzeko asmoz. Horretarako, 20 milioi dolar eskaini zituen Ilargira ibilgailu bat bidaltzeko, azalean mugitzeko eta handik irudiak bidaltzeko gai zen lehenarentzat. Eta beste 10 milioi agindu zituen bigarrenarentzat. Alabaina, hamar urte baino gehiago itxaron ondoren (hasieran 2012an zegoen helmuga), lehiaketa etetea erabaki zuen, justu talde batek baino gehiagok bide onetik zihoala iragarri zuenean. Gainera, batzuen ustez, saria ez zen nahikoa halako egitasmo batek behar zuen inbertsioa berdintzeko. Tamalez, denborak arrazoia eman die.

Bitartean, Txinako espazio-agentziak lehiari zebiltzan taldeei aurrea hartu, eta *Chang'e 3* zunda eta Yutu ibilgailua bidali zituen Ilargira. Eta orain ere, Txina da nagusi Ilargia helburu dutenen artean. Hori uste du Daniel Marin astrofisikariak: «Aurten, garrantzitsuena Txinaren *Chang'e 4* misioa izango da. Izan ere, ontzi bat Ilargiaren alde ezkutuan pausatzen den lehen aldia izango da». Azaldu duenez, horren aurretik *Chang'e 5a* jaurtitzeko asmoa zuten. «Ilargian laginak hartu eta haiek Lurrera ekartzea zen misio horren helburua, baina ontzia jaurti behar zuen suziriarekin arazoak izan dituzte eta, beraz, aurreratu egin behar izan

dute *Chang'e 4a*. Bitxia da, *Chang'e 5a 4a* baino lehenagorako zutelako aurreikusia, baina orain zenbakiak hurrenkera egokian geratuko dira».

Naiara Barrado Zientzia Planetarioen Taldeko astronomoaren esanetan, ez da erraza arrazoitzea zergatik izan behar duen Ilargiak lehentasuna. «Garai batean, esaten zen interesgarria izango litzatekeela teleskopio bat izatea Ilargian. Ilargiaren alde ezkutuan jarriz gero, ez luke Lurraren interferentziarik izango. Baina hori James Webb teleskopioarekin ere lortuko da». 2019. urterako dago aurreikusita James Webb behatoki espaziala martxan jartzea. «Izatekotan, Marterako aurreikusita dauden teknologiak probatzeko eta astronautak trebatzeko balio lezake gizakia Ilargira bidaltzeak», uste du Barradok. Ez da hori, ordea, NASaren helburua, hori baino lehen Gateway, Ilargiaren inguruan egongo den base bat, egin nahi baitu.

Kontuak kontu, arrazoi zientifikoek gako izan beharko lukete, Marinen ustez. «Esaterako, Hego poloko izotz-biltegiak ikertzea. Badakigu izotza, egon, badagoela, baina ez du ematen lehen uste zuten adina dagoenik; funtsezkoa izango da hori argitzea, hots, zenbat dagoen, eta zenbaterainoko purutasuna duen. Izan ere, izotzetik oxigenoa eta hidrogenoa atera daitezke, eta horiekin erregaia ere izango lukete. Horren arabera izango da posible, adibidez, base iraunkor bat jartzea Ilargian».

GALARRAGA, A. Elhuyar aldizkaria, 2018ko martxoa.
Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. **Zergatik iragarri zuten 2018a «Ilargiaren urtea» izango zela?**
 - a) Hainbat egitasmo abian jarriko ziren zurrumurrua zabaldu zelako.
 - b) Gizakia Ilargira itzuli ahal izango zen ustea zegoelako.
 - c) Bertan behera utzitako proiektuek Ilargia berriro helburu zutelako.
2. **Zer dio testuak *Google Lunar X Prize* lehiaketaz?**
 - a) Etetea erabaki zutela espazioa esploratzeko interes ezagatik.
 - b) Hamar urte beranduago lortu zutela jarritako helburua.
 - c) Eskainitako dirua erabili behar zena baino gutxiago zela.
3. **Zer nabarmentzen du Marinek Txinako espazio-agentziaz?**
 - a) Laster nagusia izango dela Ilargia helburu dutenen artean.
 - b) Ilargian laginak hartu eta haiek Lurrera ekartzea lortu duela.
 - c) Aurrenekoak izango direla alde ezkutuan ilargiratzen.
4. **Zergatik izan behar du Ilargiak lehentasuna Barradoren esanetan?**
 - a) Marterako teknologiaren eta astronauten probalekua izan litekeelako.
 - b) Ilargiaren alde ezkutuan teleskopio bat izatea interesgarria delako.
 - c) Arrazoitzea erraza ez bada ere, NASArentzat funtsezkoa delako.
5. **Zer ekar lezake Hego poloko izotz-biltegiak ikertzeak?**
 - a) Ilargian base bat luzaroan izateko aukera, besteak beste.
 - b) Lurrean erabil litezkeen oxigenoa eta hidrogenoa ateratzea.
 - c) Ilargian bizia aurkitzea, izotzaren purutasunaren arabera.

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ETORKIZUNA ERAIKIZ PROIEKTUA

Etorkizuna Eraikiz foru-ekimenaren eta, oro har, «etorkizuneko politika aktiboen» alde egitera dei egin du gaur Gipuzkoako diputatu nagusiak. **6** honek biharko lurraldeak eraiki nahi du, esperimentazio aktiboa eta elkarlaneko gobernantza oinarri dituen prozesuaren bitartez. Foru-arduradunaren ustetan, horixe da bihar-etziko **7** erantzuteko erarik egokiena, besteak beste, enpleguari: «Duela gutxi argitaratutako ikerketen arabera, 2025ean pertsona baino makina gehiago izango ditugu lanean, eta ezin gara ezer egin gabe geratu **8** honetako aldaketan aurrean. Prestatu eta konponbideak bilatzeari ekin behar diogu, eta hori da, **9**, *Etorkizuna Eraikiz* proiektuaren bitartez egiten ari garena».

Diputatu nagusiak «Etorkizuneko lana» **10** hartu du parte gaur. Ekitaldia *Etorkizuna Eraikiz* gunean egin da, Gipuzkoako politika publikoen laborategian. Berrogeita hamar pertsona inguruk hartu dute parte bertan, horien artean adituak, enpresa-arduradunak, gizarte-berrikuntzan aritzen diren pertsonak edota erakunde-ordezkariek. Denek ala denek, euren ikuspuntuak **11** eta geroko enpleguari buruzko eztabaida irekian hartu dute parte. Charles Leadbeater britainiarra izan da **12** gonbidatua, berrikuntza eta sorkuntza arloetan mundu mailako entzutea duen aditua eta Tony Blairren aholkulari ohia. Berak ere gaiari buruzko ikuspegi pertsonala mahaigaineratu du.

Ekitaldia Gipuzkoako diputatu nagusiak ireki du eta gogoratu du enpleguaren etorkizuna Gipuzkoako herritarren kezka nagusien artean dagoela. «Geroak kezkatzen gaitu, **13**, ikuspegi ekonomikotik begiratzen badiogu: zertan egingo dut lan? **14** aldatu beharko ote dut?». Foru-arduradunak adierazi du «gero eta ziurtasun gutxiago» dagoen garaian bizi garela, eta **15** handienetakoa dela bihar-etziko lanak eragindakoa: «Enpleguak datozen hamarkadetan izango duen sakoneko transformazioa azkenaldian eztabaida eta **16** gehien sortzen ari den gaietakoa da».

17, sakoneko aldaketa honek izan ditzakeen eragin sozialetan ere jarri du azpimarra diputatu nagusiak, eta *Etorkizuna Eraikiz* eta halako «etorkizuneko politikak» **18** alde egin du: «Berrikuntza-dosi handiak behar ditugu ondorioei **19** egiteko, aukera berriak sortu eta gizarte-berdintasunaren aldeko konpromisoei **20** eusteko». Hau da, gaurtik lan-dinamikak martxan jarri Aldundiak ezarritako helburua betetzen jarraitu ahal izateko: Gipuzkoa Europa mailan ezberdintasun gutxien duten lurraldeen artean **21**, ekonomia, gizarte, genero zein hizkuntza-ikuspegietatik.

Leadbeaterrek, bere aldetik, nabarmendu du Gipuzkoa egoera onean aurkitu duela, eta adierazi du bere ustetan etorkizuneko desafioa **22** eta gizarte-elkartasunaren arteko oreka bilatzea dela. «Hau da, nola egin dezakegun pertsonen eta teknologiaren arteko **23** zaintzeko etorkizuneko lan-merkatuan, ezin baitugu kostuak **24** bakarrik hitz egin». Aditu britainiarraren ustetan, enplegua, soldatapeko lana, ibilbide profesionala, soldatak edota pentsioak **25** daude gaur egun, eta horrek aldaketa sozial sakonak ekarriko ditu.

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) Egitura
b) Egitasmo
c) Esleipen
d) Eremu

7. a) zantzuei
b) bermeei
c) erronkei
d) zioei

8. a) galera
b) higidura
c) tamaina
d) ahulezia

9. a) hala ere
b) hain zuzen ere
c) hurrenez hurren
d) halaber

10. a) mintegian
b) aitormenean
c) harreran
d) orubean

11. a) ihartu
b) begiztatu
c) hornitu
d) plazaratu

12. a) ustezko
b) legezko
c) bidezko
d) ohorezko

13. a) batik bat
b) batez beste
c) bide batez
d) behin ere

14. a) Betekizunez
b) Estalduraz
c) Ogibidez
d) Oroimenez

15. a) iraunkortasun
b) ziurgabetasun
c) bikoiztasun
d) ezgaitasun

16. a) indusketa
b) eragiketa
c) ustiaketa
d) hausnarketa

17. a) Era berean
b) Osterantzean
c) Behinik behin
d) Haatik

18. a) suntsitzearen
b) lehiatzearen
c) eragoztearen
d) bultzatzearen

19. a) men
b) aurre
c) muzin
d) zin

20. a) tinko
b) ezkor
c) zeharka
d) nahita

21. a) parekatzea
b) iragartzea
c) kokatzea
d) lekualdatzea

22. a) lehiakortasunaren
b) aldizkakotasunaren
c) egoskortasunaren
d) gordintasunaren

23. a) bizitasuna
b) biziara
c) bizipena
d) bizikidetz

24. a) larrutzeaz
b) islatzeaz
c) murrizteaz
d) jaurtitzeaz

25. a) jokaeran
b) ezbaian
c) zaintzan
d) ezkutuan

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Autoek sortzen duten kutsadura dela eta, Udalak hainbat neurri jarri ditu martxan hiria atseginagoa eta osasuntsuagoa izan dadin.

Hirigintza saileko teknikaria zara. Neurriek hautsak harrotu dituzte eta eskutitza idaztea erabaki duzu hiritarrak lasaitzeko, neurriak eta zergatiak azaltzeko eta, zalantzarik izanez gero, nora jo ahal duten jakinarazteko.

Idatzi hiritarrentzako eskutitz hori.

Ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako


- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Azkenaldi honetan langile publikoen absentismoa murrizteko bi neurri proposatzen ari dira administrazioak: bata, lanera huts egiten duten langileak ekonomikoki zigortzea, eta bestea, hutsik egiten ez dutenak saritzea.

Langile publikoa zaren aldetik, herriko aldizkarian zure ikuspuntua azaltzea erabaki duzu.

GAIA: ABSENTISMOA LANGILE PUBLIKOEN ARTEAN?

Sektore publikoan lan-absentismoa % 5 baino altuagoa da eta ez du berdin eragiten Administrazioaren arlo eta lanpostu guztietan.



Administrazio bakoitzak absentismoa kontrolatzeko plan bat diseinatu beharko luke eta urtean bitan argitara eman beharko lituzke horren inguruko datuak eta arrazoiak.

Langile publikoen soldatak herritarrek ordaintzen dituzte eta egia da sektore pribatukoek ez dituzten lan-baldintzak dituztela. Hala ere, ezin esan dena ona denik Administrazioan.

- Langile publikoak pribilegiatuak al dira sektore pribatukoaren aldean?
- Uste duzu lan-absentismoa handiagoa dela langile publikoaren artean? Zergatik?
- Zer deritzozu absentismoaren inguruko datuak eta arrazoiak argitara emateari?
- Benetako neurririk hartzen dela esango zenuke? Zer neurri proposatuko zenuke?

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

[A eredua]

- **1 ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Ilargia: hain hurbil, hain urrun»

1.	B	2.	C	3.	C
4.	A	5.	A		

- **2. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «*Etorkizuna Eraikiz* proiektua»

6.	B	7.	C	8.	C
9.	B	10.	A	11.	D
12.	D	13.	A	14.	C
15.	B	16.	D	17.	A
18.	D	19.	B	20.	A
21.	C	22.	A	23.	D
24.	C	25.	B		